



### BILAKETA

Hasiera > Liburuak > **Denak katu, nork bere kale**

2011-01-09 --  
2259.zenb

bilaketa  Bilatu

bilaketa aurreratua

- aurreko zenbakiak
- egileak
- elkarrizketatuak



2259.zenbakia

Deabruaren abokatuak

Asteko gaia

Pertsonaia

Iritziak

Erdiko Kaiera

Termometroa

Larrun



TESTUA

### Liburutegia



- **IRATI JIMENEZ ::**  
ATSEKABE ZAITUT
- **TXALAPARTA**
- **ORRIALDEAK ::** 110
- **PREZIOA ::** 16€

### Denak katu, nork bere kale

Katu Kale asko dago, gizaki bezainbeste. Izan ere Katu Kale begirada da, mundua perzibitzeko sentsibilitate berezia, eta begirada gizakiari lotzen zaion zer bat, barrukoa eta pertsonala. Bi dira, ene ustez, gizakiaren moldea osatzen duten alderdiak, etengabe gatazkan: aparientzia edo "argitasuna" eta barruko prozesioa deritzodana, norberarena, zenbaitetan beldurgarria, iluna, Katu Kale.

Erdi katu eta erdi gizon-emakume den gizakia dugu, Irati Jimenezen *Atsekabe zaitut* eleberriaren protagonista. Nor? Edonor. Izenik gabeko eta beraz, izan zehatzik gabeko

pertsonaiak, fantasia eta errealtatearen arteko nahasketa, espazioen tratamendua, gizakiaren bi alderdi gatazkatsu horien ispilu bilakatu dira.

Eme aldatu da baina Hamarrek oraindik ez daki. Lagun minak dira, hain min, haginka egiten diotela elkarrri. Biak erdi katu eta erdi gizaki, jendearengan dagoen berezko atsekabea piztean lan egiten dute. Bilbo distiratsu eta itxuraz zorionsu baten parte dira, baina Bilbok gizakia bezala, badu bere alde ilun-ekzutua: "Ahanztura, Doluminak, Amorrúa (...) Katu Kale leku horiek guztiak dira, hiriaren distiraz haratago, hutsune mortuetan haziak" (79. orrialdean). Mundu horrek ito egiten du Eme, ez daki zer duen. Aldatzen ari da baina ez daki zergatik, eta itolarri horren lekuko bilakatzen gaitu. Prozesu horretan, irakurle gizon-emakumeak katutasuna (gizatasuna, agian?) bereganatzen du. Zorionsu izan nahi dugula konturatzen gara baina horretarako atsekabearen beharra dugu, gaur maitatu eta bihar gorrotatu egiten dugun bezala. Zergatik? Batek daki. Horra giza-bizitzaren zentzu tragikoa. Sentimendu antagonikoak dira, bai, baina ez derrigor erabat bateraezinak. Biek elkarbizitzen ikasi beharra dugu aurrera egiteko, aldatzeko, izana eraikiz joateko.

Baina aldaketak iluntasunak bezala beldur ematen du, horregatik batzuek argiz beteriko kaleak nahiago dituzte. Hala ere, gizakia argiz zein iluntasunez osatuta dago, eta bide distiratsunean katu bat izango du zain, zorionsu izateko sufritzen ikasi behar dela gogoraraziko diona.

Nahi ala ez, denak gara katu, baina norberak hautatu egiten du zein kale nahiago duen. Horiarik bat aparientziatz zorionsua da, bestea misterioa da oraindik: ongi etorri bizitzara.

Ezin amaitu Iratz Iriarte, eleberriaren ilustrazioen egilea, zoriondu gabe, miseria hain modu ederrean marrazten jakin izanagatik.